

æk
23.korrika

HARROR
ERRRI

Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

KORRI

12-18 URTE

INFORMAZIO OROKORRA ETA ARGIBIDEAK

HELBURUA

Euskararen erabilera sustatzea eta indartzea. Helburu berarekin lanean diharduen AEK-k antolatutako KORRIKA ekimenaren zergatiak eta beharraz ohartzea.

IRAUPENA

KORRIKA 23 martxoaren 14an hasiko da Irunen eta 24an amaituko da Baionan.

KORRIKA kanpainak bi asteko iraupena izango du. Betiere, irakasleen esku geratuko da KORRIKA hasi aurretik lanketa abiatzea, kanpaina bete-betean jarraitzea edo egun gutxiagotan burutzea.

PROZEDURA

Bi asteko proposamena da hau, baina ez da ahaztu behar malgutasun osoa dagoela unitatea erabiltzeko garaian, jarduerak gehienak solteak baitira. Horrela, beraz, norberaren gustura antola daiteke lanketa. Bestalde, **unitate desberdinetako jarduerak erabilgarri izan litezke beste adin tarte batzuetarako ere. Irakasleen esku geratzen da gainerako unitateak begiratu eta gustuko jarduerak euren mailetara moldatzeko aukera.**

Jarduera bakoitza garatzeko zenbat egun edo saio erabili jakiteko gomendioa ere bertan duzue.

Proposatzen diren jarduerak ez dira soilik Euskara arloan egiteko. Euskararen normalizazioa edozein jakintza-arlotako

irakasleen ardura ere badenez, ikastetxeko irakasle eta gainerako hezitzaileen esku-hartzea oso garrantzizkoa izango da helburuak lortzeko garaian. Honenbestez, **garrantzitsua izango da irakasle-taldeak unitateak aurrera eramateko planifikazioa egitea.**

EGITURA

Unitateak adinaren arabera antolatuta daude. Adin-tarte bakoitzari egokia zaion lanketa proposatzen da.

- HARRI (3-6 urte)
- HERRI (6-9 urte)
- ORRO (9-12 urte)
- KORRI (12-18 urte)

MATERIALA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

Webguneak bi atal nagusi ditu: **unitate didaktikoen** atala eta **gida didaktikoena**.

Unitate didaktikoen atala ikasleei zuzendurik dago, bertan aurkituko baitituzte landuko duten unitate didaktikoko jarduerak. Horretarako, euren adin tarteari dagokion unitatean sartzea besterik ez dute. HARRO eta HERRI unitateetan gelako arbel digitalean proiektatzeko erabil litezke. ORRO eta KORRI unitateen kasuan ordea, ordenagailu eramangarrien bitartez, ikasleek eurek sartu ahal izango dute webgunean (Driveko fitxak eskuratzeko, dokumentuaren kopia bat egin behar da eta norberaren profilean gorde).

Gida didaktikoen atala berriz, irakasleentzako da. Bertan, unitate bakoitzari dagozkion azalpenak aurkituko dituzte. Landuko duten

unitatea aukeratu eta honen gida didaktikoa deskargatu beharko dute. Gidan agertuko zaizkie jarduera bakoitzaren nondik norakoak, txantiloiaik...

Multimedia atalean, jardueretan erabili beharrekotako baliabideak eskaintzen dira. Azkenik, **webgunea** atalean, Korrikako webgune ofizialerako sarbidea topatuko duzue.

KIDETZE-PLANAK

Plangintza hauek ikasle helduak eta gazteagoak kidezeko proposamena egiten digute. Hainbat jardueratan, kidezte plana abian jartzeko azalpenak aurki daitezke: *ipuina, plazara dantzara!* eta *mezu sekretuak* jardueretan, esaterako.

Kidetzearen helburuak honako hauek dira:

- Elkarrekintzaren bitartez ikasle txiki eta nagusien euskara-erabilera eragitea.
- Ikastetxearen hizkuntz normalizazioan ikasle nagusiak subjektu aktiboak izatea eta ez hartzaile pasibo huts, horretarako ikasle helduenen protagonismoa bultzatzen da.
- Ikasle nagusiek ardurak eta konpromisoak har ditzaten bultzatzea.
- Ekintza honen bidez motibazioa indartzea, batez ere, ikasle nagusiekin.

Material hau, Euskal Herriko Ikastolak elkartearen koordinaziopean, hainbat profesionalen ekarpenak jasoz KORRIKArako egindako lan kolektiboa da.

ARDURADUNA

Iñaki Zapirain Retegi

LAGUNTZAILEA

Ane Beltran

KOORDINAZIOA

Tito Serrano (AEK)
Amaia Gutierrez (Ikastolen elkarte)

IPUINAREN EGILEA

Goiatz Labandibar

IPUIN KONTALARIA

Lur Korta

ILUSTRAZIOA

Iñaki Zapirain Retegi

KOREOGRAFIAREN EGILEA

Myriam Perez Cazabon

DISEINUA

Arteman
Komunikazioaren Artisauak

ESKERRAK

Gema Inés
Joseba Irazabal
Oretera Ikastola

JARDUERAK HERRI	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
1. LELOAREN GOGOETA	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen alde egin dezakegunaz gogoetatzea. Aldaketarako daukaten gaitasunaz ohartaraztea. Euskararen inguruko mezu positiboak luzatzea, horien konpromisoa azpimarratuz. Talde-lana sustatzea, elkarrizketa 	<ul style="list-style-type: none"> KORRIKari buruz dakitena partekatu. HARRO HERRI leloaren inguruan gogoetatu talde txikitan. Talde bakoitzak bi letra marraztu eta konpromisoak idatzi eta partekatu. Gelako horman itsatsi. KORRIKako APParen berri eman. 	<ul style="list-style-type: none"> Saio bat. 	Gelako tutorea
2. KANTA	<ul style="list-style-type: none"> KORRIKA 23ren girotze-lana eta aurkezpena. Entzumena, ulermena eta hiztegia lantzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Kantaren hitzak hutsuneekin idatziz eman. Kanta pare bat aldiz entzun, hutsuneak betez. Etxean, www.korrika.eus webgunearen bidez, aurtengo kanta, baita aurreko edizioetakoak ikusi/entzun. Musikako saioetan aurtengo abestia interpretatu. Sarrera/irteera orduetan, jolas-orduan... KORRIKA 23ren kanta jarri. 	<ul style="list-style-type: none"> Saio bat kanta entzun, komentatu eta hutsuneak betetzeko. Aurtengo edizioiko kanta jarri KORRIKAK irauten duen bitartean. Bi edo hiru saio partiturak interpretatu nahiko balira. 	Gelako tutorea edota musika irakaslea.
3. IPUINA	<ul style="list-style-type: none"> Kontakizuna irakurri eta ulertzeko gaitasuna lantzea. Hiztegia lantzea. Ahozkotasuna, gorputz adierazpena eta irudimena erabiltzea eta lantzea. Ikasleen arteko lankidetzeta eta bizikidetzeta lantzea, zaharrenak erreferente bihurtuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Ipuina irakuri edo kontakizuna jarri eta ondoren, galderei erantzun. <p>Ipuinaren berridazketa</p> <ul style="list-style-type: none"> Ipuinaren hasiera errespetatuz, jarraipen sortzailea egin. Idatzitako testuak ikasle txikienei kontatu. Ipuin bilduma osatu. <p>Antzezlana</p> <ul style="list-style-type: none"> Ipuinaren antzerki bertsioa prestatu talde txikitan. Antzezlana entseiatu eta emanaldia eskeini ikasle txikienei. 	<ul style="list-style-type: none"> Ipuina entzun eta berridazteko saio bat. Antzezlana sortu eta prestatzeko bi edo hiru saio. Azken saioa bat ikasle txikiei emanaldia eskeintzeko (ipuinaren kontaketarako edo antzezlanerako). 	Gelako tutorea (Kidetzea gauzatzeko etapa desberdinetako irakasleen arteko koordinazioa beharko da)
4. IBILBIDEA	<ul style="list-style-type: none"> KORRIKA 23ren ibilbidea lantzea. Euskal Herria ezagutzea. Euskal Herriko hainbat herri ezagutzeko eta deskribatzeko gaitasuna garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriko mapa gela barruan jarri. KORRIKA 23ren ibilbidea markatu: etapa bakoitzaren hasiera eta bukaera. 	<ul style="list-style-type: none"> KORRIKAK irauten duen egun guztietan 	Gelako tutorea

JARDUERAK HERRI	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
5. KORRIKA, HISTORIKOA!	<ul style="list-style-type: none"> • Modu ludikoan KORRIKAREN historia lantzea eta ezagutzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kahoot-eko jolasa gelan proiektatu. • Ordenagailu eramangarrietan Kahoot plataforman sartu eta jolasaren kodea idatzi. • Lehiakideen izenak txertatu. • Jolasean hasi bideoak ikusiz eta galderei erantzunez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Egunean tartetxo bat, bost egunez, jolaseko galderei hamarkadaka erantzuteko. 	<p>Gelako tutorea</p>
6. MEZU SEKRETUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak lekukoaren sinbologiaz ohartaraztea. • Euskararen inguruko mezu positiboak luzatzea eta euskararen alde egin dezakegunaz gogoetatzea. • Talde-lana sustatzea, elkarrizketa. • Adin desberdineko ikasleen arteko harremana sustatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreko edizioetan idatzi diren mezuen inguruan gogoeta egin. • 23. KORRIKAn eman nahiko luketen mezuen inguruan hausnartu eta adostutako ideien inguruan mezua idatzi. • Idatzi duten mezuarekin QR kodea sortu, inprimatu eta herriko edo eskolako txoko batean itsatsi. • Txokoaren deskribapena idatzi eta eskolako iragarki taulan jarri. • Ikaskideek ezkatututako QR kodeak topatu eta mezuak irakurri. 	<ul style="list-style-type: none"> • Saio bat aurreko ediziotako mezuak irakurri eta aztertzeko. • Beste saio bat mezua idatzi eta QR kodea sortzeko. • Azken saio bat aurkitu dituzten mezuak gelan partekatuko. (QR kodeak itsatsi, eta topatu, aldiz, eskolaz kanpoko orduetan egin ditzakete). 	<p>Gelako tutorea edo Euskara irakaslea (Kidetzea gauzatzeko etapa desberdinetako irakasleen arteko koordinazioa beharko da)</p>
7. OZTO(POZ) LASTERKETA	<ul style="list-style-type: none"> • Modu ludikoan, KORRIKAK izaten dituen "oztopoen" kontzientzia hartzea. • Gorputzaren kontzientzia eta koordinazioa hobetzea. • Talde-lana sustatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • KORRIKA 22ko laburpen bideoa ikusi eta partekatu. • Lasterketarako ibilbidea prestatu. • Gainditu beharreko oztopoen berri eman. • Taldetan banatu eta ibilbidea gauzatu lekukoa helmugara eraman arte. 	<ul style="list-style-type: none"> • Saio bat 	<p>Gorputz Hezkuntzako irakaslea edo gelako tutorea.</p>
8. ARTELANA	<ul style="list-style-type: none"> • KORRIKA 23ren girotze-lana. • Adierazpen plastikorako oinarritzko teknikak ezagutzea. • Sormena lantzea. • Euskal kulturako iruditegia ezagutzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • KORRIKA 23ko logotipoaren hondoko irudia proiektatu eta galderei erantzun. • Euskara, euskal kultura edota KORRIKAREkin lotura duten elementuak marraztu. • Murala osatu eta KORRIKA 23ko leloa idatzi. 	<ul style="list-style-type: none"> • Saio bat gelan marrazkiak egiteko eta beste bat sortutako irudiekin murala osatzeko. 	<p>Plastikako irakaslea edo gelako tutorea.</p>

JARDUERAK HERRI	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
9. BINGO MUSIKATUA	<ul style="list-style-type: none"> • KORRIKA23ren girotze-lanean sakontzea. • KORRIKAK historian zehar izan dituen kantak eta hauen egileak ezagutzea. • Euskal musikaren aniztasunaz ohartzea eta kanta hauekin jolastuz ondo pasatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • KORRIKako edizio desberdinetako kantak ausaz entzun. • Kantak identifikatu eta txartelean markatu. • Lerroa edo txartel osoa osatu arte jolasean aritu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Saio bat gelan 	<p>Gelako tutorea edota Musika irakaslea.</p>
10. PLAZARA DANTZARA!	<ul style="list-style-type: none"> • KORRIKA 23ren girotze-lana. • Gorputz adierazpena sormenezko komunikazio eta adierazpide gisa erabiltzea. • Gorputzaren kontzientzia eta koordinazioa hobetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bideo tutorialaren laguntzaz koreografiako urratsak ikasi. • Entseguak egin. • Emanaldia gauzatu. • Kidetzea martxan jarriko balitz, ikasle txikiagoei koreografia irakatsi. 	<ul style="list-style-type: none"> • Saio bat koreografiako urratsak ikasi eta haien arteko loturak finkatzeko. • Entseguak egiteko saioak, beharraren arabera. • Azken saio bat, emanaldirako. 	<p>Musika irakaslea edota Gelako tutorea. (Kidetzea gauzatzeko etapa desberdinetako irakasleen arteko koordinazioa beharko da)</p>
11. OIHALETXEA	<ul style="list-style-type: none"> • "Azterketak euskaraz" kolektiboko partaideekin enpatizatzea. • Gaiaren inguruko hausnarketa bideratzea. • Elkartasunaren garrantziaz jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • "Oihaletxea" dokumentalaren berri eman eta testuinguratzeko galderak erantzun. • Dokumentala ikusi eta zineforumari hasiera eman, gida jarraituz. • Ideia garrantzitsuenen sintesia egin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Saio bat dokumentala ikusteko. • Saio bat zineforumara aurrera eramateko. 	<p>Gelako tutorea edota Euskara irakaslea.</p>
12. OMENALDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen alde lan egiten duten pertsonen berri izatea eta hauek balioestea. • KORRIKA 23ko omenduak ezagutzea eta omenaldi txiki bat eskaintzea. • Talde lana sustatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreko edizioetako omenduen inguruan solastu eta KORRIKA 23ko omenduak nortzuk diren adierazi. • Omenduen inguruko lanketa egin eta elkartasunaren garrantzia azpimarratu galderei erantzun. • Iparraldeko lagunei ikus-entzunezko piezak sortu eta bidali. • Egindako lanak sare sozialetan partekatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Saio bat aurreko ediziotako eta KORRIKA23ko omenduen inguruko lanketa egiteko. • Bi edo hiru saio ikus entzunezko piezak sortu eta grabatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasle taldea.
13. KORRIKA GAZTEA	<ul style="list-style-type: none"> • KORRIKA 23ren girotze-lana. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lasterka egiteko materiala prestatu: petoak, pankarta... • KORRIKA gazterako prestatutako egitaraua aurrera eraman. 	<ul style="list-style-type: none"> • KORRIKA herritik pasatzen den egunean, baita aurreko egunetan ere bai. • Ikastetxeko ordutegian. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako tutorea.

1. LELOAREN GOGOETA

SARRERA

Jarduera honen helburua, ikasleek KORRIKA 23ko leloa ezagutu eta horren inguruan hausnartzea da. HARRO, HERRI! Lotsa galtzeko unea iritsi dela adierazi nahi du leloak, garenaz harro gaudela esateko momentua. Harrotasunez komunitatean eragiteko ardura hartzera gonbidatzen gaitu, euskara egunerokora, lagunartera eta plazara ekarriz.

Idea hauen inguruan gogoetatu nahi da jarduera honetan, ikasleek kontzientzia har dezaten, eurek ere zerbait egin dezaketela bide honetan.

Ikasleen arteko eztabaidak sortzea ere bada xedea: nahiz eta gai beraz jardun, gai emozionala gainera, ikuspegi anitz izan daitezkeela ohar daitezten. Horien barneko hausnarketa ere bilatzen da hemen, baita elkarren arteko jarrerak ere, desadostasunaren zein desberdintasunaren aurrean: elkarbizitzarako lanketa bat.

PROZEDURA

- Irakasleak KORRIKAri buruz galdetuko du eta talde handian partekatuko da KORRIKAZ dakitena.
- KORRIKA 23ko leloa aurkeztuko da jarraian eta haren inguruan gogoetatuko da. Ikasleak bost talde txikitan banatuko dira eta irakasleak galdetuko die bost minutuz hausnartzeko HARRO HERRI leloaren inguruan: zer ulertzen duten, zenbat esanahi dituen, nola interpretatzen duten. Talde bakoitzak, bozeramaile bat aukeratuko du, taldean hausnartu dena talde handian partekatzeko.

Galdera hauek luzatu diezazkiekegu ikasleei:

- Zer esan nahi dute “harro” eta “herri” hitzek?
 - **Harro/harrotasuna:** norbera bere buruarekin gustura sentitzea edo ideia batzuekiko atxikimendu handia sentitzea.
 - **Herri/herria:** komunitatea, lurraldea, pertsonak osatzen duten jende-multzoa.
- Zein mezu eman nahi izan digute HARRO HERRI leloarekin?
 - Dugunaz eta garenaz harro sentitu behar dugula. Gure hizkuntzaz eta gure herriaz, harro.
- Ondoren, KORRIKA 23ko [aurkezpen bideoa](#) ikusiko dute. Talde handian partekatuko da ulertu dutena eta ondorioak aterako dituzte denon artean.

1. LELOAREN GOGOETA

Gogoeta eramateko lagungarri:

Iritsi da lotsa galtzeko unea, heldu da garenaz harro gaudela esateko momentua.

Elkarrizketa bideratzeko lagungarri:

Iritsi da lotsa galtzeko unea, heldu da garenaz harro gaudela esateko momentua.

Bidegurutze honetan, garaia da ispilu aurrean jarri eta aho betez oihukatzeko euskaraz bizi nahi dugula. Oihu ozena, harro nabarmentzeko hizkuntza propio eta zoragarria dugula, eta honen defentsan ausardiaz jokatzeko garaia dela.

Euskararen alde eta euskaraz harro gaude, euskal herritarren hizkuntza delako, euskal hiztunena eta izango direnena. Familia, lagunarte, erakunde, enpresa... denok osatzen dugu euskal komunitatea, eta denok egingo dugu bultza aurrera. Egin ohi dugun festa, jarrai dezala izaten aldarri: denon ahotan, denok irrintzi, eta helburu bakarra, mundu euskaldun bat irabazi.

Euskarak mugitzen du KORRIKA, eta KORRIKAK mugituko du euskal komunitatea.

Mugimenduak sortzen baitu mugimendua. Izan harro! Orainarte egindakoaz eta egiteko dugunaz. Euskara hizkuntza akademikoa baino askoz gehiago delako, espazio informalak bilakatu nahi ditugulako indargune. Horrexegatik bizi nahi dugu lotsa gabe, horrexegatik ozen esan nahi dugu gureaz harro gaudela eta prest gaudela euskarari plaza berriak zabaltzeko.

Harro herri! Lotsa galdu eta erabiliz aldarrikatu gurea dugun hori. Harro herri eta hedatu euskara espazio berrietara, posizio berrietara. Harrotasunez hartu komunitatean eragiteko ardura, ekarri dezagun euskara egunerokora, lagunartera, plazara.

- Ikasleek taldeka, leloarekin lotutako ideien inguruan hausnartuko dute.
 - Harro al gaude garenaz?
 - Sentitzen al dugu lotsarik garena adierazteko?
 - Zer egin genezake euskararen erabileran eragiteko?
 - Zein konpromiso har genitzake?
- Talde bakoitzak A3 neurriko orrietan HARRO HERRI leloa osatzen duten bi letra marraztuko ditu eta letren barruan, taldean egindako hausnarketan ateratako konpromisoak idatziko dituzte.
- Talde bakoitzak egokitu zaizkien letren irudiak erakutsiko ditu eta idatzitako konpromisoen berrie emango du talde handian.
- Guztien artean sortutako letrekin HARRO HERRI leloa osatuko da eta gelako horma batean itsatsi.
- Jarduerari amaiera emateko, Korrikako APParen berri emango diegu, euren gailuetan instalatu dezaten.

BALIABIDEAK

- Letrak marrazteko A3 neurriko orriak
- Margoak

2. KANTA

SARRERA

23. KORRIKari hasiera ematea eta girotzen hastea da kantaren helburua. Ikasleak eta ikastetxeak, noski, baita, txikienekin, familiak ere bai.

Maite Arroitauregi Aranburu "Mursego" izan da Korrika 23ko kanta korralaren zuzendari artistikoa. Bera izan da kantan parte hartzen duten abeslarien gidaritzaren eraman duena.

Amaia Astobizak aldiz, Korrika 23ko leloa oinarri harturik, hitz joko jolasti bat proposatu digu aurtengo kantaren hitzetan. **Harro herri korrika, bagara!**

Ohiko kanta-egituratik kanpora begiratu duen abesti poliedriko bat da honako hau, pop ukituak, harmonikoak, sinfonikoak, kaotikoak... dituena. Abeslari eta musikari bakoitzaren ekarpen bereizgarriak elkartu eta bat egiten dute alaitasunez, dramatismoz eta umorez betetako melodian.

Abestiak bere berezitasunez harro dagoen herriari keinu egiten dio.

Kantaren letretan hutsuneak utziz, ikasleen entzumena eta ulermena lantzeko aukera dago, baita hiztegia lantzeko ere.

Bestalde, aurtengo edizioako abestia instrumentuekin interpretatu ahal izateko baliabideak ere eskaintzen dira.

PROZEDURA

- Lehen entzunaldian (edota [bideokliparen](#) ikustaldian), ondorengo galderen inguruan arituko gara lanean:
 - Zer iruditu zaizue kanta, bideoklipa?
 - Zer da gehien gustatu zaizuen? Zerk eman dizue arreta?
 - Gustatzen al zaizue musika estilo hau? Ezagutzen al dituzue abeslariak?
 - Zer hitz egin zaizue ezagun/ ezezagun?
- Ondoren, kantaren letra hutsuneekin euskarri idatzian emango zaio ikasle bakoitzari (binaka edota taldeka egiteko aukera ere badago).
- Kanta entzutera emango da bi aldiz, ikasleak hutsuneak betetzen saiatzeko.
- Azken entzunaldiaz baliatuz, talde handian emango dira erantzunak.
- Irakasleak aukera dezake zein hitz ezkutatu nahi duen, ikasleen adinaren arabera, edo landu nahi duena kontutan hartuz (dena den, proposamen bat luzatuta dago hurrengo orrialdean).
- Saio bukaeran, webguneko multimedia atalaren berri emango zaie, aurreko edizioetako Korrika kantak entzun edota begira ditzaten.

HARRO HERRI kanta interpretatzea

- Korrika 23ko kanta entzuteaz gain, interpretatu ahal izateko baliabideak eskeintzen dira edizio honetan. Bi aukera dituzue:
 - Kantaren akordeekin eta perkusioarekin interpretatzeko sortutako partitura.
 1. **ahotsa:** kantaren akordeak (xilofonoa, kanpaiak, tubofonoak, metalofonoa... erabil daitezke).
 2. **ahotsa:** perkusioa (perkusio txikia erabiliz interpreta daiteke).
 - Kantaren melodia interpretatzeko partitura.
- Irakasleak, eskolako baliabideen baitan banatuko ditu ikasleak, orkestra osatu eta instrumentuak joz kanta interpretatzeko.
- Hainbat entsegu egin ondoren eskolan emanaldi bat antola liteke.

BALIABIDEAK

- Korrikako unitate didaktikoen webgunea.
- Kantaren letrak hutsuneekin, paperezko euskarrian.
- Partiturak (unitate didaktikoen webgunean deskarga daitezke).
- Kantaren hitzak eta itzulpenak

2. KANTA

HARRO HERRI

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!

Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Euskararen sarea
Ez da eroriko

Ahoa bizi-bizi
Prest belarriak
Eskuz esku heldurik
Lehertu eztarriak

Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Algara batean
Edo afoniko

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Hizkuntzak hiztunekin
Aberasten dira

Argazki bat ipini
lasterka egina
Bihotz, muxu, irrintzi
Nik bai eragina!

Onlineko txatean
Ez zirri ez mirri
gorputzen epelean
ikimilikikirri

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

Harro herri
Hona gu euskaldunak
Euskararen lagunak
Hats eta izerdi

Ku kukulumuxu
Ko-ko kokoriko
Algara batean
Edo afoniko

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Lurrarekin batera
Jira eta bira

Esku bat nirea
Bestea zurea
Eman bostekoa
Izan dadin gurea

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!

Herri harro
Sarean ta kalean
Bihotza pil-pilean
Tik-tak, tik-tak, tik-tok

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!

Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Euskararen sarea
Ez da eroriko

Ikasten bazabiltza
Egin gurekin
Elkar ulertu arte
Ekin ta ekin

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Lurrarekin batera
Jira eta bira

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Hizkuntzak hiztunekin
Aberasten dira

Hizkuntzak ikastera
Bagoaz kanpora
Zergatik ez herrian
Euskara ahora

(irakurtzeko)
Ez badigute ematen,
arrazoia guri
Su emango diogu,
haien legeari

2. KANTA

HARRO HERRI (Hizki xehez)

Harro herri
Harro herri korrika
Harro herri korrika
.....!

Harro herri korrika
Harro korrika
Harro herri korrika
.....!

Harro herri
Hona gu
Euskararen lagunak
..... eta izerdi

Herri harro
..... ta kalean
Bihotza pil-.....
Tik-tak, tik-tak, tik-tok

Mingainaz
Mintzairaz mintzaira
..... batera
Jira eta bira

Ku kukulumuxu
Koko
Euskararen sarea
Ez da

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
.....
hiztunekin
Aberasten dira

Ku
Ko-ko kokoriko
..... batean
Edo afoniko

Harro herri korrika
Harro korrika
Harro herri korrika
.....!

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

Ahoa bizi-bizi
Prest
Eskuz esku heldurik
..... eztarriak

.....bat ipini
lasterka egina
Bihotz,, irrintzi
Nik bai eragina!

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Lurrarekin
Jira eta bira

Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Euskararen
Ez da

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Hizkuntzak hiztunekin
..... dira

Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Algara batean
Edo afoniko

..... txatean
Ez zirri ez mirri
gorputzen
ikimilikikirri

Esku bat nirea
..... zurea
Eman
Izan dadin gurea

Ikasten
Egin gurekin
..... ulertu arte
Ekin ta

Hizkuntzak ikastera
..... kanpora
Zergatik ez herrian
.....

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

(irakurtzeko)
Ez badigute ematen,
arrazoia guri
Su emango diogu,
haien legeari

3. IPUINA

SARRERA

KORRIKA 23ren leloarekin lotura jolastiak eginez aurkezten zaigu edizio honetako ipuina, *Ispilu harrogarria* izenburupean. Harri eta Nora izeneko neska-mutilak izango ditu protagonista.

Haitzuloko oihartzunarekin eta bertan aurkituko duten ispiluarekin dibertituko dira bi lagunak, ahokorapiloak sortuz eta ispilu aurrean memelokeriak eginez, barrez lehertu arte. Harrotasuna ere sentituko du Harrik, ispilu aurrean ikusten duen horrekiko.

23. KORRIKAK gure hizkuntzaz, dugunaz eta garenaz harro egotera animatzen gaitu eta ipuinak aitzakia paregabea emango digu ideia hauen inguruan hitz egiteko. Nola sentitzen zarete zuek? Harro al zaudete zuen buruaz? Iritsi da lotsa galtzeko unea!

Ikasleen irudimena eta sormena ere sustatu nahi dira jarduera honetan, baita ikasle zaharrenek eta gazteen arteko harremanak: zaharrenek erreferentzialtasuna eta ardura, gozamina eta sormenaren bidez landu nahi dira, kidetze-plana martxan jarritz.

PROZEDURA

- Lur Korta ipuin kontalariaren ipuin kontaketa bideoa proiektatuko da gelan edo irakasleak ipuina irakurriko du eta jarraian, ipuinari buruzko galderak egingo zaizkie, ulermena eta hiztegia lantzeko. Ipuinaren ilustrazioa ere erakutsiko zaie ikasleei.

Galdera posibleak:

1. Nola izena dute ipuineko pertsonaiek?
2. Nolakoak irudikatzen dituzue?
3. Egon al zarete sekula haitzulo baten barruan?
4. Entzun al duzue inoiz oihartzunik? Non? Noiz?
5. Ezagutzen al duzue ahokorapiloric?
6. Sentitu al zarete noizbait zuen buruarekin lotsatuta? Zein egoeretan? Zergatik?
7. Zergatik lotsatzen ote da Harri?
8. Sentitu al zarete noizbait zuen buruaz harro? Zein egoeretan? Zergatik?
9. Zerrendatu ditzagun guztion artean harro egoteko ditugun arrazoiak!

Ipuinaren lanketarekin jarraitzeko bi proposamen luzatzen dira jarduera honetan, biak ere kidetze-estrategia aurrera eramateko baliagarriak izan daitezkeenak:

Ipuinaren berridazketa:

- Ispilu harrogarria ipuinaren bertsio bat idazteko eskatuko diegu ikasleei. Ipuinaren hasiera errespetatuz, istorioari jarraipen sortzaile bat ematea izango da helburua.

Ondorengo galderak luzatuko dizkiegu ikasleei laguntza gisa:

- Zer topatuko dute Norak eta Harrik haitzuloan?
- Zer gertatuko zaie?
- Zertaz sentituko dira harro?
- Nola amaituko da ipuina?

KORRIKA 23ren mezuarekin loturak egiten ahalegintzeko esango diegu ikasleei, harrotasunaren kontzeptuari erreferentzia eginez.

- Ipuinak berridatitzekoan, kidetze-estrategia erabiliz, eskolako txikienei kontatuko dizkiete idatzitako testuak. Garrantzitsua izango da kontaketa egiteko garaian, dramatizazio eta intonazio gokia erabiltzea.
- Berridatzitako ipuinekin, Nora eta Harriren abenturak kontatuko dituen ipuin-bilduma bat osatu liteke eskolako liburutegian uzteko.

3. IPUINA

Antzezlanak:

- Ipuina antzerki bilakatzeko proposamena egingo zaie ikasleei, ondoren, eskolako ikasle txikienei, kidetze-estrategia erabiliz antzezlanak eskeintzeko. Horretarako, ikasleak talde txikitan banatuko dira eta modu honetan banatuko dituzte antzezlanak prestatzeko lanak:
 - **Gidoilari taldea:** ipuina antzerki formatuan berridazteaz arduratuko da. Antzerki baten gidoia idazteko irizpideak kontuan hartu beharko dituzte: pertsonaien izenak esaldi bakoitzaren aurretik jarri, pertsonaiek egiten dituzten ekintzak parentesi artean zehaztu, narratzaileak egongo den erabaki...
 - **Aktore taldea:** gidoilari taldeak gidoia idatzi bitartean, ipuineko pertsonaia nork gorpuztuko dituen adostuko dute. Ikasle bakoitzak interpretatuko duen pertsonaia nolako den irudikatu beharko du: nolako ahotsa duen, zein keinu egiten dituen, nolako ibilkera duen... Elkarren aurrean pertsonaia interpretatzeko inprobisazioak egingo dituzte eta hobekuntza proposamenak egingo dizkiote elkarri. Gidoia idatzita dagoenean, testua ikasi eta eszenatokian egingo dituzten mugimenduak finkatuko dituzte.
- **Eszenografia taldea:** artzerkia taularatzeko eskolako aretoa atontzeaz arduratuko da. Hasteko, antzezlanak eduki beharko lukeen dekoratuak nolakoak izan behar duen irudikatuko dute eta honen bozeto eta krokisak egin. Ideiak finkatuta dituztenean, horma-irudiak margotuko dituzte eszenatoki atzekaldean jartzeko.
- **Produkzio taldea:** eskolako ikasle txikienei irakasleekin emankizunak egiteko hitzorduak zehazteaz arduratuko da, baita antzezlanak egingo den espazioa adostez ere. Horrez gain, gainerako taldeek behar dituzten baliabideak lortzea ere euren ardura izango da. Aktoreek beharko dituen jantziak eta atrezzo elementuak ere eurek eskuratu beharko dituzte.
- Talde bakoitzak ordezkari bat izango du eta talde horretako partaideek prozesuan zehar bilerak egingo dituzte talde bakoitzak bere eginbeharrak nola daramatzen informatuta egon daitezen eta baita sor daitezkeen arazoak aurrean, konponbideak bilatzeko. Ordezkari hauen gain geldituko da, bestalde, antzezlanaren zuzendaritza lana.
- Talderen batek bere egitekoa bukatu duenean, gainerako taldeetan zintzilik dauden zereginetan laguntza eman beharko du.
- Talde guztiak beraien lana bukatu dutenean eta antzezlanak behar bezala entseiatu ondoren, emanaldia eskeinitzeko zaie eskolako ikasle txikienei.

Oharra:

Ipuina modu honetan landu nahi ez bada, ORRO unitateko ipuinaren jardueran proposatutakoa ere egin liteke, hizkuntzarekin jolas eginez ahokorapiloak sortuz.

BALIABIDEAK

- Ipuina eta ilustrazioa
- Ipuina berridazteko ordenagailua.
- Eszenografia sortzeko materialak.
- Aktoreen jantziak, mozerroak eta beharrezko tresnak.

3. IPUINA

ISPILU HARROGARRIA

Harri eta Nora bi lagun dira. Nora lotsagabe samarra da, eta Harri, berriz, lotsati-lotsatia. Baina elkarrekin oso ongi moldatzen dira.

Egun batean, Norak Harriri egun batzuk lehenago aurkitu zuen toki berezi bat erakutsiko ziola esan zion.

Oinez ibili behar izan zuten pixka bat, eta nahikoa ezkutuan zegoen harri-tarte batetik pasatu.

- Hortxe da! -esan zuen Norak, haitzulo baten sarrera seinalatuz.

Bai, haitzulo bat zen Noraren toki sekretua.

Barrura sartu ziren eta Norak aurrera egin zuen. Harri pixka bat beldurtu zen eta atarian geratu zen, baina Norak dei egin zion:

- Harri! Etorri! - eta haitzuloak oihartzun egin zuen: -rri, -rri, -rri... - Ispilu bat topatu dut haitzulo barruan!

- Nor dago zurekin? -galdetu zion Harrik.

- Inor! -or, or, or esan zuen oihartzunak.- Ni bakarrik nago! Oihartzuna da hori! – eta berriz ere oihartzunarekin erantzun zuen haitzuloak: -ri, -ri, -ri...

Harri ispilu ondora heldu zenean, Nora keinuka hasi zen: eskuekin bi masailei tiraka, mihia atera eta sudurra ukitzen saiatzen, hatzekin belarriak mugitzen... Oso barregarria zen!

Harri lotsatiak begiratu egiten zion, baina ez zen ausartzen ispilu aurrean jartzen.

- Orain zu! -esan zion Norak.

- Lotsa ematen dit... -erantzun zion Harrik.

- Zergatik? Zure burua ikusteak lotsatzen al zaitu? Niri oso dibertigarria iruditu zait. Zatoz, biok jarriko gara ispilu aurrean!

Lagunarekin batera ispilu aurrean jartzeak lotsa gutxiago ematen zionez, jarri zen ispilu aurrean Harri ere.

- Harri, irri! –esan zuen Norak, eta haitzuloak oihartzun egin zuen berriz: -rri,

rri, rri...

- Harri, esan zerbait! Ez lotsatu!!

- Nora, gora! -erantzun zuen Harrik, lotsak gainetik kenduta, eta baita

haitzuloak ere erantzun! -ra, ra, ra...

- Inurri! Bihurri! Etorri! – Norak eta -rri, -rri, -rri haitzuloak.

- Badirudi ahokorapiloak asmatzen ari garela! -otu zitzaion Harriri.

Nora berriz hasi zen masailei tiraka, mihia atera eta sudurra ukitzen saiatzen, hatzekin belarriak mugitzen eta Harri ere, pixkanaka lotsak galdu eta ispilu aurrean keinuka eta irrintzika hasi zen.

Bi lagunek tripan min izan arte egin zuten barre eta irri.

- Dagoeneko ez zaude lotsatuta. Ez al zaude zure buruaz harro lotsa gainditu duzulako? – galdetu zion lagun Norak Harri lotsatiari.

Eta Harrik pentsatu zuen baietz; harro zegoela ispiluan ikusten zuen ume hartaz.

Haitzulo sarreratik heltzen zen argia apaltzen hasi zenez, jakin zuten bazela garaia etxera itzultzeko.

Saltoka eta korrika, bakoitza bere etxera abiatu zen, afaltzeko ordua izango baitzen laster.

Eta harro herri... egin orro eta korri!



æk
23.korrika

**HARRO
HERRI**



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

4. IBILBIDEA

SARRERA

Jarduera honen helburua KORRIKA 23ren jarraipena egitea da. Horretarako, www.korrika.eus webgunean erakusgai dagoen GPS bilatzailea erabiliko duzue.


KORRIKA egunez egun zein bazterretan dagoen jakiteaz gain, Euskal Herriko txoko eta bazterrak gehiago ezagutzeko aukera izango dugu.

PROZEDURA

- Euskal Herriko mapa gela barruan edo ikastolako pasabideetan jarriko da eta bertan KORRIKA 23ren ibilbidea markatuko dugu: KORRIKA non hasten den, non amaitzen den eta egun bakoitzeko etapen hasiera eta amaiera puntuak.
- Egun bakoitzean, hasiera-puntutik bukaerainoko ibilbidea markatuko da.
- Egun guztietan antzeko orduan webgunea begiratu eta momentu horretan KORRIKA non dagoen markatuko da mapan.
- Aukera ikusiko balitz, prentsan, eta batez ere interneten topatutako argazkiak mapan kokatu eta lekuen deskribapenak osatuko ditugu.

BALIABIDEAK

- Euskal Herriko mapa
- KORRIKA 23ren ibilbidea
- Ibilbidea.Herriak eta orduak
- www.korrika.eus webgunea.
- Eranskailuak.



23. KORRIKA IBILBIDEA

KORRI
12-18 URTE



æk 23.korrika
Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra



MARTXOAK 14, OSTEGUNA

Irun	16:00
Hondarribia	16:37
Irun	17:10
Hendaia	17:26
Ziburu	18:45
Donibane Lohizune	19:08
Azkaine	19:40
Itsasu	21:58
Kanbo	22:43
Uztaritze	23:29

MARTXOAK 15, OSTIRALA

Hazparne	00:47
Donapaleu	04:11
Arüe	05:29
Maule	06:53
Urdiñarbe	07:19
Larzabale	09:20
Donibane Garazi	10:58
Azkarate	11:24
Baigorri	12:16
Erratzu	14:14
Arizkun	14:34
Elizondo	15:08
Irurita	15:26
Eugi	18:23
Zubiri	19:02
Erro	20:00
Lintzoain	20:19
Garralda	21:57
Abaurrepea	23:11
Abaurregaina	23:30

MARTXOAK 16, LARUNBATA

Eskaroze	00:54
Nabaskoze	03:10

Domeñu	04:51
Zangoza	06:51
Oibar	07:36
Irunberri	08:39
Artieda	09:25
Agoitz	10:54
Urrotz	11:52
Egues	13:01
Uharte	13:28
Sarriguren	13:51
Burlata	16:44
Atarrabia	17:04
Iruñea	17:14
Antsoain	17:29
Iruñea	17:43
Artika	18:05
Berriozar	18:16
Barañain	19:15
Zizur Nagusia	19:38
Noain	20:37
Biurrun	21:48
Eneritz	22:29
Obanos	23:04
Gares	23:22
Mendigorría	23:54

MARTXOAK 17, IGANDEA

Artaxoa	00:55
Tafalla	02:03
Miranda de Arga	03:55
Faltsez	05:31
Martzilla	07:47
Alesbes	08:38
Cadreita	09:45
Castejon	10:33
Tutera	12:24
Cascante	13:35
Tutera	14:47
Arguedas	16:18
Cadreita	17:22

Milagro	18:05
Azagra	19:25
San Adrian	19:58
Andosilla	20:23
Carcar	20:49
Lodosa	21:48
Sesma	22:45

MARTXOAK 18, ASTELEHENA

Allo	00:10
Lizarra	01:09
Murieta	02:53
Antzin	03:12
Acedo	03:45
Kanpezu	04:54
Genevilla	05:26
Lapoblacion	06:20
Meano	06:34
Kripan	07:05
Elvillar	07:36
Guardia	08:15
Leza	08:50
Urizaharra	10:25
Trebiñu	11:56
Argantzón	12:55
Langraiz	13:45
Zuhatzu Kuartango	15:09
Izarra	16:13
Murgia	17:02
Abetxuko	19:33
Gasteiz (Alde Zaharra)	21:58
Elorriaga	23:11

MARTXOAK 19, ASTEARTEA

Dulantzi	00:16
Dallo	01:03
Zuhatzu Donemiliaga	01:39
Agurain	01:59
Erdoña	02:35
Zalduondo	02:56
Araia	03:20

Egino	04:12
Ziordia	04:33
Olazti	04:47
Altsasu	05:13
Bakaiku	06:09
Etxarri Aranatz	06:27
Arbizu	07:07
Lakuntza	07:14
Uharte Arakil	07:38
Hiriberri	08:25
Irurtzun	09:13
Latasá	09:34
Oskotz	10:24
Eritzegoiti	11:09
Gelbentzu	11:42
Larraitzar	12:14
Beruete	13:52
Aldatz	14:24
Etxarri	14:31
Mugiro	14:50
Lekunberri	15:03
Uitzi	15:39
Leitza	16:31
Goizueta	18:38
Hernani	20:20
Lasarte-Oria	22:15
Usurbil	22:53

MARTXOAK 20, ASTEAZKENA

Orio	00:02
Zarautz	00:43
Zumaia	02:03
Zestoa	04:04
Azkoitia	05:31
Bergara	07:36
Elgeta	08:34
Ermua	09:58
Eibar	10:30
Soraluze	11:15
Elgoibar	12:09
Mutriku	14:11
Ondarroa	15:03
Markina	16:21

Munitibar- Arbazegi- Gerrikaitz	17:45
Lekeitio	19:36
Elantxobe	21:37
Gernika	23:04

MARTXOAK 21, OSTEGUNA

Bermeo	01:31
Mungia	03:56
Gorliz	05:43
Plentzia	06:08
Getxo	07:29
Leioa	08:37
Derio	10:20
Galdakao	12:33
Basauri	13:55
Arrigorriaga	14:58
Bilbo	16:59
Barakaldo	20:31
Sestao	21:52
Portugalete	22:08
Santurtzi	22:40
Trapagaran	23:18
Ortuella	23:55

MARTXOAK 22, OSTIRALA

Abanto	00:27
Muskiz	01:18
Zalla	03:51
Gordexola	05:29
Artziniega	06:25
Aiara	07:56
Urduña	09:14
Amurrio	10:12
Laudio	11:27
Arakaldo	12:35
Ugao	13:09
Zeberio	13:46
Areatza	15:01
Igorre	15:38
Dima	15:59

Amorebieta- Etxano	17:39
Elorrio	20:13
Durango	21:56
Mañaria	23:08

MARTXOAK 23, LARUNBATA

Otxandio	00:12
Legutio	01:12
Gatzaga	02:24
Arrasate	03:35
Oñati	04:34
Zumarraga	06:54
Gabiria	08:05
Idiazabal	09:37
Beasain	10:57
Ordizia	11:48
Alegia	13:14
Ibarra	14:13
Andoain	15:57
Urnieta	16:42
Hernani	17:25
Astigarraga	17:54
Donostia	19:22
Pasai Antxo	23:01
Lezo	23:33
Oreeta	23:52

MARTXOAK 24, IGANDEA

Oiartzun	00:33
Lesaka	03:25
Bera	04:01
Sara	05:17
Senpere	06:09
Arbona	07:38
Biarritz	08:07
Angelu	08:45
Baiona	09:17
Hiriburu	09:51
Mugerre	10:22
Baiona	12:29

5. KORRIKA, HISTORIKOA!

SARRERA

Jolas digital honen bitartez, KORRIKAREN inguruan sakondu nahi da, modu ludiko batean.

Ikasleek, ordenagailu eramangarriak erabiliz, KORRIKAREN historiaren eta bitxikerien berri izango dute. Hamarkadaka banatuta dauden bideoak adi-adi ikusi eta galderei erantzun beharko dituzte.

PROZEDURA

- Egun bakoitzean, hamarkada bati dagokion bideoa ikusi eta honen inguruko galderei erantzun beharko zaie. Bost hamarkadetan banatuta dagoenez, astelehenetik ostiralera, egunero tartetxo bat eskaintzea proposatzen da.
- Jolasean hasteko, irakaslea gelako ordenagailutik Kahoot-eko webgunean sartuko da KORRIKAKO unitate didaktikoen webguneko estekan klikatuz. Jolasa arbel digitalean proiektatuko da. Egun horretan landuko den hamarkadako estekan klik egingo du.
- Ikasleek ordenagailu eramangarriak hartuko dituzte, [Kahoot-eko webgunean](#) sartuko dira eta gelako pantailan proiektatutako kodea sartuko dute bertan, euren izenarekin batera.
- Irakasleak hasiera emango dio jolasari.
- Ikasleek arbel digitalean irakurriko dituzte galderak eta ordenagailu eramangarrietan klikatuko dituzte erantzunak.
- Jolasean aurrera egingo da, galderei erantzuten bukatu arte.

Oharra:

Jolasa bakarka edo talde txikitan egin liteke. Talde txikitan egiten bada, ikasleek erantzuna adostu beharko lukete erantzun aurretik.

*Egokiago ikusiko balitz, ORRO unitateko KORRIKAHOOT jarduera ere egin liteke (bideo eta galdera desberdinak dira).



BALIABIDEAK

- Gelako ordenagailua eta proiektagailua.
- Ordenagailu eramangarriak.

5. KORRIKA, HISTORIKOA!

JOLASEAN SARTZEKO GIDA

- Jolasa proiektatzeko, KORRIKAko unitate didaktikoen webgunearen estekan klikatu eta Kahoot plataformako erabiltzaile izena eta pasahitza sartu (Kahooteko erabiltzailerik ez baduzue, sortu egin beharko duzue).
- Ondorengo urratsak jarraitu:



- Jolasteko, [Kahoot.it](https://kahoot.it) estekan klikatu, proiektatutako kodea sartu eta jokalariaren izena idatzi.



5. KORRIKA, HISTORIKOA!

KAHOOT JOLASEKO GALDERAK:

KORRIKA, historikoa! (1980-1990)

1. Nondik nora joan zen 1. KORRIKA?

- a. Oñatitik Bilbora
- b. Iruñetik Donostiara
- c. Baionatik Gasteizera
- d. Hendaiatik Iruñera

2. KORRIKAren edizio guztietan zurezko lekuko bat eraman ohi da, eskuz esku. Zer dago lekukoaren barruan?

- a. Omenduaren izena
- b. Mezu sekretu bat
- c. Kantaren letra
- d. Ezer ez, lekukoa trinkoa da-eta

3. Badakizu nork egin zuen lehenengo lekukoa?

- a. Jorge Oteizak
- b. Remigio Mendiburuk
- c. Juan Gorritik
- d. Eduardo Txillidak

4. Zer gertatu da lehenengo lekukoarekin?

- a. Oraindik lekuko bera erabiltzen da
- b. 1. KORRIKAren amaieran enkantean jarri zen, dirua ateratzeko
- c. San Telmo museoan dago
- d. 1988an erre egin zen, sute batean

5. Mezua KORRIKAren osagarri garrantzitsua da. Lehenengo edizioan...

- a. ... ez zen mezurik idatzi. Ohitura horrekin 3. KORRIKAren hasi ziren
- b. ... **mezua bidean galdu zen**
- c. ... mezua irakurtzea debekatu zuten
- d. ... mezuaren idazlea ezezaguna izan zen

6. 1980an, lehenengo KORRIKA amaitu eta hurrengo egunean...

- a. John Lennon tirokatu zuten New Yorken
- b. Bruce Wayne arte martzialetakoa aktore ezaguna hil zen
- c. Lance Armstrong astronautak ilargia zapaldu zuen
- d. Angelina Jolie aktorea jaio zen

7. 3. KORRIKA Baionatik Bilbora joan zen, 1983an. Nola amaitzen zen KORRIKA hartako leloa? "Euskaraz..."

- a. ... bizi nahi dut"
- b. ... nik, zuk zergatik ez?"
- c. ... badakizu?"
- d. ... **eta kitto!"**

8. Zenbat KORRIKA amaitu ziren Bilbon laurogeiko hamarkadan?

- a. Bat
- b. Bi
- c. **Hiru**
- d. Lau

9. Bideoan, lekukoaren eramaileen artean, fikziozko pertsonaia ezagun bat agertu da. Nor izan da?

- a. **Batman**
- b. Mafalda
- c. Lara Croft
- d. Gandalf

10. Bideoaren amaieran 2. KORRIKAren kanta entzun dugu. Nor da kantaren egilea?

- a. Itoiz musika-taldea
- b. Egan musika-taldea
- c. **Akelarre musika-taldea**
- d. Oskorri musika-taldea

5. KORRIKA, HISTORIKOA!

KORRIKA, historikoa! (1991-2000)

1. Joan den mendeko azken hamarkadan, Euskal Herriko hiriburu batean ez zen KORRIKA bakarra ere hasi edo amaitu. Zeinetan?

- a. Gasteizen
- b. Bermeon
- c. **Maulen**
- d. Donibane Garazin

2. Bideoaren arabera, hamarkadako zein urtetan hartu zuen parte KORRIKAn Eusko Jaurlaritzako kide batek?

- a. 1993an, 8. KORRIKAn
- b. 1995ean, 9. KORRIKAn
- c. 1997an, 10. KORRIKAn
- d. **1999an, 11. KORRIKAn**

3. Zein urtetan jarri zen abian KORRIKA Kulturala?

- a. 1991n, 7. KORRIKAn
- b. **1993an, 8. KORRIKAn**
- c. 1995ean, 9. KORRIKAn
- d. 1997an, 10. KORRIKAn

4. Bideoan, KORRIKA Kulturalako karteletan, egon beharko ez lukeen pertsonaia ezagun bat agertu da. Nor?

- a. **Angela Merkel**
- b. John Travolta
- c. Fidel Castro
- d. Ama Teresa Kalkutakoa

5. 8. edizioan, Tapiak eta Leturiak 1. KORRIKArekin kanta egin zuten: "Aide KORRIKA!".

Egia ala gezurra?

- a. Egia
- b. **Gezurra**

6. 8. KORRIKA egin zen urte berean, Bakearen Nobel Saria eman zioten Nelson Mandelari, kartzelan 27 urte eman ondoren.

Egia ala gezurra?

- a. **Egia**
- b. Gezurra

7. 10. KORRIKAn, edizioen zenbaki biribila ospatzeko...

- a. ... 1. KORRIKArekin ibilbidea eta leloa errepikatu ziren, gutxi gorabehera.
- b. ... hasi eta amaitu herri berean egin zen: Iruñean.
- c. ... KORRIKArekin asmatzaileak omendu zituen AEK-k.
- d. ... zilarrezko lekukoa erabili zen, zurezkoaren orde.

8. 9. KORRIKak euskal musikari bat omendu zuen. Nor?

- a. Maite Idirin
- b. Lourdes Iriondo
- c. Benito Lertxundi
- d. **Mikel Laboa**

9. 90eko hamarkadan bost KORRIKA egin ziren. Lasterketa bi urtez behin egin ohi dela kontuan hartuta, zenbat urte behar izan ziren bost edizio horiek egiteko?

- a. **8 urte inguru**
- b. 9 urte inguru
- c. 10 urte inguru
- d. 11 urte inguru

10. Bideoaren amaieran Euskal Herriko leku ezagun bat agertu da, jendez beteta, KORRIKA baten amaieran. Zein izan da?

- a. Gaztelu plaza, Iruñean
- b. Easo plaza, Donostian
- c. Areatzako parkea, Bilbon
- d. **Andre Maria Zuriaren plaza, Gasteizen**

5. KORRIKA, HISTORIKOA!

KORRIKA, historikoa! (2001-2010)

1. Bideoa milurteko berriaren ospakizunekin hasi da; baina, badakizu zein egunetan hasi zen bigarren milurtekoa?

- a. 2000ko urtarrilaren 1ean
- b. 2000ko abenduaren 31n
- c. 2001eko urtarrilaren 1ean
- d. **Aurreko bakarrean ere ez**

2. Milurtekoaren lehenengo KORRIKA 12.a izan zen. Nola amaitzen zen KORRIKA hartako leloa?

“Mundu bat...”

- a. ... euskarara bildu”
- b. ... KORRIKA”
- c. ... euskaraz bizi”
- d. ... hizkuntza bat”

3. 12. KORRIKA Baionan amaitu zen, 2001eko apirilaren 8an. Hilabete berean...

- a. Ibarretxe EAeko lehendakari izendatu zuten.
- b. **Sexu berekoen arteko ezkontza legeztatu zen, Herbehereetan.**
- c. Mir espazio-estazioa ozeanora erori zen.
- d. *Harry Potter eta Sorgin Harria* estreinatu zen.

4. Bideoari arretaz begiratu badiozu, 14 KORRIKA non hasi zen jakingo duzu. Non?

- a. **Orreagan**
- b. Baionan
- c. Trebiñun
- d. Andoainen

5. Diasporaren lehenengo KORRIKAK Bartzelonan eta Londresen antolatu ziren, 90eko hamarkadan. Zein urtetan?

- a. 1991n
- b. 1993an
- c. 1997an
- d. **1999an**

6. Saharako irudietan, KORRIKA baten leloa ikusi da. Zein izan da?

- a. Euskalakari (17. KORRIKA)
- b. BatZuk (20. KORRIKA)
- c. **Euskahaldun! (19. KORRIKA)**
- d. Klika! (21. KORRIKA)

7. 2007an, uholdeak zirela-eta, ibai bat KORRIKAREN bidea eteteko zorian egon zen, Castejón herrian. Badakizu zein den ibai hori?

- a. Eska
- b. Bidasoa
- c. Aturri
- d. **Ebro**

8. Urte berean, Bastidatik Trebiñurantz abiatzean, mendate bat elurteak itxita aurkitu zuten korrikalariek, eta elurretan korrika igaro behar izan zuten, autoak behean utzita. Zein da mendate hori?

- a. Herrera
- b. **Urizarra**
- c. Opakua
- d. Belagua

9. KORRIKAREN bidean, edizio guztietan, “korrika” esateko hitz asko entzun ahal izaten dira; ondokoetako zein ez da hitz horren sinonimoa?

- a. **Arrapostu**
- b. Galopan
- c. Takarraran
- d. Antxintxika

10. 1993tik aurrera, KORRIKAREN antzeko ekintzak antolatzen hasi ziren munduan zehar, hainbat hizkuntza gutxituren alde. Nola du izena Korsikan egiten denak?

- a. Correllengua
- b. **Currilingua**
- c. Correlingua
- d. Currolengua

5. KORRIKA, HISTORIKOA!

KORRIKA, historikoa! (2011-2020)

1. 17. KORRIKAren leloa "euskalakari" hitzarekin amaitzen zen. Badakizu nola hasten zen?

- a. Maitatu, ikasi, ari...
- b. Zu eta ni...
- c. Euskaraz bizi...
- d. Euskaldun orori...

2. 17. edizioko kanta Gose taldeak egin zuen. Nola du izena taldeko abeslariak?

- a. Aiora Renteria
- b. Ines Osinaga
- c. Anari
- d. Izaro Andres

3. 17. KORRIKA Donostian amaitu zen; baina, zein herritan hasi zen?

- a. Trebiñun
- b. Andoainen
- c. Otxandion
- d. Urepelen

4. 2017ko martxoan, 20. KORRIKA hasi baino egun batzuk lehenago, mundu-mailako emakumeen lehenengo greba deitu zuten, arrakasta handiz.

- a. Egia
- b. Gezurra

5. Nor omendu zuen KORRIKAK 20. edizioan?

- a. Euskaltzaindia
- b. Txillardegia
- c. KORRIKAren asmatzaileak
- d. Aurreko bakarra ere ez

6. 20. KORRIKAn Otxandiotik ateratzean, zer esan beharko zitzaizen korrikalariei oso azkar ez joateko?

- a. Astiro-astiro!
- b. Geldi-geldika!
- c. Poliki-poliki!
- d. Mantso-mantso!

7. 2011n, 17. KORRIKAK Euskaltzaindia omendu zuen. Badakizu noiz sortu zen erakunde hori?

- a. 1900. urtean
- b. 1911. urtean
- c. 1918. urtean
- d. 1961. urtean

8. Bideoko irudietan erraldoiak ikusi ahal izan ditugu, lekukoa eramaten. Zein KORRIKAtan agertu dira?

- a. 17. KORRIKAn
- b. 18. KORRIKAn
- c. 19. KORRIKAn
- d. 20. KORRIKAn

9. Hamarkadako bost KORRIKAK iragartzen zituzten berrien artean, horiei ez dagokien ikur ezagun bat sartu zaigu. Zein?

- a. Eraztun olinpikoak
- b. Rolling Stones taldearen logoa
- c. Athletic Cluben armarria
- d. Anonimusen irudia

10. Bideoaren amaieran, 18. KORRIKAren kanta entzun ahal izan dugu. Nork egin zuen kanta hori?

- a. Betagarrik
- b. Esne Beltzak
- c. Gosek
- d. Zea Maysek

5. KORRIKA, HISTORIKOA!

KORRIKA, historikoa! (2021etik aurrera)

1. Zenbatgarren KORRIKA ospatu zen 2021. urtean?

- a. Korrika 21
- b. Korrika 22
- c. Korrika 23
- d. Ez zen Korrikarik ospatu

2. Zein izan zen KORRIKA 22ko leloa?

- a. Klika
- b. Hitzekin
- c. Harro irri
- d. Euskahaldun

3. Hauetako zein pertsonaia azaldu da KORRIKA 22ko bideoklipean ageri den graffitian?

- a. Amona bat makilarekin eta betaurreko urdinekin
- b. Neska gazte bat, txistua jotzen
- c. Aitona bat, txapela jantzita eta pipa erretzen
- d. Ume bat txakurra paseatzen

4. Bideoan, Donostian amaitu zen KORRIKA 22ko irudiak agertzen dira. Baina nork idatzi zuen edizio horretako mezua?

- a. Karmele Jaiok
- b. Lorea Agirrek
- c. Miren Amurizak
- d. Onintza Enbeitak

5. Nork omenduko du laster abian jarriko den 23. KORRIKA?

- a. Durangoko azoka
- b. Euskara-ikasleak
- c. Azterketak euskaraz kolektiboa
- d. Aurreko bakar bat ere ez

6. 23. KORRIKAK ondoko herriak zeharkatuko ditu. Badakizu zein ez dagoen Zuberoan?

- a. Donaixti
- b. Muskildi
- c. Arhüe
- d. Urdiñarbe

7. Bere historia luzean, hainbat herritatik abiatu da KORRIKA. Ondokoen artean, zeinetatik ez da inoiz atera?

- a. Irundik
- b. Andoainetik
- c. Trebiñutik
- d. Karrantzatik

8. Nor arduratu da KORRIKA 23ko kanta zuzentzeaz?

- a. Jon Maia
- b. Maite Arroitauregi Aranburu "Mursego"
- c. Amaia Astobiza
- d. Nerea Urbizu

9. Bideoan, KORRIKA 23ko kantaren bideoklipa ikus daiteke. Zein hondartza agertzen da bertan?

- a. Zurriola hondartza
- b. Azkorri hondartza
- c. Antilla hondartza
- d. Hondarraitz hondartza

10. 23. KORRIKA hasten denetik amaitu arte, zenbat ordu emango dituzte euskaltzaleek korrika, orotara?

- a. 236 ordu
- b. 244 ordu
- c. 260 ordu
- d. 264 ordu

6. MEZU SEKRETUAK

SARRERA

Korrikan gertatu ohi den bezala, lekuko barruan dagoen mezu sekretua jakitera ematen den unean sortzen den zirrara sortu nahi da jarduera honetan.

KORRIKako mezua idaztearen ohorea emango zaie ikasleei, eurek esan nahiko luketena aditzera eman dezaten. Era berean, gainerako ikaskideek idatzitako mezuak, herriko edo eskolako txoko desberdinetan topatu eta irakurtzeko irrika sortu nahi da jarduera honen bitartez.

Bestalde, kidetze-estrategia erabiliz adin desberdinetako ikasleak elkartzea ere proposatzen da, nagusien erreferentzialtasuna aintzat hartuz, gazteenek ere mezu sekretuen bilaketan gozatu dezaten.

PROZEDURA

- Ikasleak taldeka bilduko dira.
- Aurreko edizioetan idatzi diren mezuak irakurriko dituzte eta hauen inguruan gogoetatuko dute.
- 23. KORRIKAN eman nahiko luketen mezuaren inguruan pentsatuko dute segidan. Lehenik eta behin, bakoitzak bere ideiak idatziko ditu. Ondoren, talde txikian, norberak bere ideiak aurkeztuko ditu. Jarraian, taldekide guztien

artean adostuko da zein ideiaren inguruan idatziko duten mezua.

- Mezua idazteko orri birakariaren teknika erabiliko da. Taldeko ordezkari bat hasiko da mezua idazten. Idatzitakoarekin gainerakoak ados daudenean, hurrengo taldekideak jarraituko du. Honela, idatzia bukatu arte. Egindako lana sinatu egingo dute. Kontuan hartu QR kodea sortzeko garaian erabili liteken gehieneko karaktere kopurua.
- Bestalde, mezua ezkutatu duten herriko txokoa aukeratuko dute taldekide guztien artean, eta leku honen deskribapen txiki bat idatziko dute. Mezuak eskola eremuan ezkutatu badira, deskribapenik gabe, ikasleen esku utzi liteke hauek aurkitzea.
- Lanak bukatu dituztenean, 23. KORRIKArako idatzi duten mezuarekin QR kodea sortuko dute. Kodea inprimatu eta aukeratu duten herriko edo eskolako txokoa itsatsiko dute, eranskailu edo pegatina baten antzera.
- Lekuaren deskribapena, eskolako iragarki taulan jarriko dute (edo eskola bakoitzaren webgunean), jarduera honetarako bereziki sortuko den lekuan.
- Momentu honetatik aurrera hasiko da jolasa. Ikasleek, mezu sekretuak ezkututzen diren lekuen deskribapenak aintzat harturik, herriko txoko horietara joan eta QR kodeak

topatu beharko dituzte, gainerako ikaskideek idatzitako mezuak irakurtzeko. Jolasa eskolara mugatu bada, deskribapenik gabe, eskolako eremuan topatu beharko dituzte QR kodeak.

- Kidetze-estrategia erabiliz, jolasa ikasle txikiagoekin abian jartzea bultzatuko da. Adin desberdinetako ikaslez osatutako taldetxoak egingo dira eta elkarrekin ekin beharko diote QR kodeen bilaketari. Garrantzitsua izango da ikasle helduenek gazteagoei laguntzea, guztiek esperientziaz goza dezaten.
- Eskolaorduan, denbora tarte bat hartu liteke topatu dituzten mezuak gainerakoekin partekatzen.

QR kodeak sortzeko webgune posibleak:

<https://www.qrcode-monkey.com/es/#text>
<https://qrcodeveloper.com/generator>

Oharra:

Mezu sekretuen gaia modu sinpleago batean landu nahiko balitz ORRO unitateko "Igorle sekretua" jarduera egin liteke.

BALIABIDEAK

- Aurreko ediziotako mezuak (unitate didaktikoen webgunean eskuragarri).
- Ordenagailu eramangarriak eta inprimagailua.
- Mugikorrak.
- Deskribapenak idazteko fitxa.

MEZU SEKRETUAK

Non dago herriko txoko hau?

(Idatzi hemen deskribapena. Ondoren, inprimatu eta jarri eskolako iragarki taulan.)

7. OZTO(POZ) LASTERKETA

SARRERA

KORRIKAK, lasterketa hasten den momentutik helmugara iritsi arte ibilbide luzea izaten du, 2300 kilometro ingurukoa, hain justu. 2300 pertsona inguruk pasatzen diote beraz, lekukoa batak besteari.

Baina KORRIKAREN helburua ez da inork lasterketa irabaztea, lekukoa eskuz esku pasatuz, elkarri lagunduz eta elkarrekin, euskararen aldeko aldarria Euskal Herriko txoko guztietan zabaltzea baizik.

Ibilbide horretan zehar elkartasun eta maitasun keinu asko jasotzen du KORRIKAK, euskararen alde dauden milaka eta milaka lagun babesa. Geldiezin egiten du horrek KORRIKA.

Baina ibilbidean zehar oztopoak ere izaten dira, eguraldiak eragindakoa eta bestelakoak. Traba guztien gainetik, dena den, beti heltzen da helmugara.

Guzti honen inguruan gogoetatzeko baliagarria izango da jarduera hau, ikasleak taldetxotan jarrita eta lekukoa eskuz esku pasatuz, oztopo guztiak gainditu eta helmugara iristea helburu izango duena.

PROZEDURA

- Irakasleak ibilbidea prestatuko du eta ikasleei, jardueraren nondik norakoak azalduko dizkie.
- Ikasleak 4 laguneko talde txikitan banatuko dira.
- Talde bakoitzak ibilbidearen zati bat gauzatzeko erronka izango du, egokitu zaion oztopoa gaindituz, lekukoa hurrengo taldeari pasa arte. Lekuko gisa, gorputz hezkuntzako saioetan erabili ohi diren koloretako espumazko txurro bat erabili daiteke.
- **Ibilbidearen zati bakoitzak oztopo bat izango du:**
 - **1. zatia:** zaku lasterketa batekin emango zaio hasiera ibilbideari. Taldekide guztiak zaku handi baten barruan sartuta egon beharko dute eta saltoka, elkarrekin erritmoa markatuz, egokitu zaien ibilbide zatia osatu beharko dute, lekukoa eskuan daramatela.
 - **2. zatia:** ikasleak egokitu zaien ibilbideko eremuan banatuko dira eta lekukoari hanka artean eutsiz, eskuekin ukitu gabe pasa beharko diote elkarri. Azkena hasiko da lekukoa pasatzen. Hurrengoari pasa ahala, ilaran lehenengo postuan kokatuko dira, egokitu zaien ibilbidearen amaierara iritsi eta lekukoa hurrengo taldeari pasatu arte.
 - **3. zatia:** Taldekideak koltxoneta txiki baten gainean egongo dira eta beste koltxoneta txiki bat izango dute aldamenean. Koltxoneta batetik bestera pasatuz eta koltxonetak lekuz aldatuz, euren ibilbide zatia osatu beharko dute lekukoa daramaten bitartean. Koltxonetekin egin beharrean, adreiluekin ere egin daiteke. Ikasle bakoitza adreilu baten gainean kokatuko da eta beste adreilu bat elkarrekin partekatuz eta elkarri lagunduz, batetik bestera pasatu beharko dute euren ibilbide zatia bukatu arte.
 - **4. zatia:** ibilbide zati hau bankuak ilaran jarrita osatuko da. Ilaran azkena dagoen ikasleak, lehenengo postura joan beharko du bere taldekideen laguntzarekin, bankuetatik erori gabe. Dinamika errepikatu egingo da, egokitutako ibilbidea osatu arte. Ilarako lehenak eramango du beti lekukoa.
 - **5. zatia:** Taldekide guztiak koltxoneta baten gainean egongo dira, bat izan ezik. Koltxoneta gainean ez dagoen laguna izango da koltxonetari tiratzeko ardura izango duena. Honek, "harro, herri, korri!" esaten duenean, koltxoneta gainean daudenek salto egin beharko dute eta koltxonetari tira egiteko ardura duenak, koltxoneta aurrerantz mugitu. Dinamika errepikatuko da helmugara iritsi arte. Koltxoneta gainean doazenak eramango dute lekukoa.

7. OZTO(POZ) LASTERKETA

- Garrantzitsua da talde desberdinen artean elkartasuna adieraztea eta animatzea, lekukoa guztion artean amaieraraino eramatea baita jardueraren helburua. Ikasleak, gainerako taldeetako partaideak animatzera bultzatuko ditugu, lekukoa euren ibilbide zatira iristen den bitartean. KORRIKako edizio desberdinetako kantak ere entzun daitezke, girotzeko.
- Lekukoa amaierara heltzen denean amaituko da jarduera. KORRIKari erreferentzia eginez, hausnarketa bideratuko da helburu bat lortzeko eta oztopoak gainditzeko taldean jarduteak eta elkartasunak duten garrantzia azpimarratuz.

Oharra:

Behin helmugara iritsita, kontrako norabidean errepikatu daiteke ibilbidea, jolasa luzatu nahi bada.

Ibilbidea zati gehiagotan banatzerik ere badago eta oztopo berriak txertatu.

BALIABIDEAK

- Espumazko txurroa edo egurrezko makila (lekuko gisa erabiltzeko)
- Zaku lasterketak egiteko zaku handia
- Bankuak
- Koltxonetak
- Koloretako adreiluak

8 . ARTELANA

SARRERA

KORRIKA 23ko logotipo koloretsuak Euskal Herri plural bat irudikatu nahi du eta honen hondoa historia, konpromezua, ilusioa eta etorkizunaz harro dagoen herri bizi baten isla da. Euskal kulturaren eta KORRIKArekin lotura zuzena duten ikonoz beterik dago.

Jarduera honen helburua ikasleak guzti honetaz jabetu eta guztion artean artelan komunitario bat sortzea izango da.

PROZEDURA

- Irakasleak KORRIKA 23ko logotipoaren hondoko irudia proiektatuko du gelan eta ikasleei galderak luzatuz bertan ikusten dutena partekatuko dute.
- Ondorengo galderak luzatuko zaizkie ikasleei:
 - Museo batean artelan hau ikusten baduzue, zer iradokiko dizue? Zein emozioekin lotuko zenukete? Zein izenburu jarriko zenukete?
 - Artelaneko zein elementu ezagutzen dituzue?
 - Artistaren baten iruditegia/margotzeko estiloa antzematen al duzue? Norena? Zein elementutan?
- Ikasle bakoitzari euskara, euskal kultura edota KORRIKArekin lotura duen irudi bat pentsatzeko eskatuko zaio.
- Collage teknika erabiliz eta koloretako kartulinak baliatuz, pentsatutako ideia irudia sortzeko eskatuko zaie, kartulina zatiak moztuz eta elkarrekin itsatsiz. Nahiago izanez gero, irudiaren marrazkia kartulina batean egin daitekete eta ondoren, errotulagailu edo margoekin margotu.

- Eskolako sarreran edo egoki ikusten den pareta batean, ikasle bakoitzak sorturiko irudia itsatsiko da guztion artean mural eder bat osatuz. Irudiak itsasteko garaian konposizioari garrantzia emango zaio, irudiak elkarren ondoan kokatuz, sakonera emanaz bata bestearekin gainjarriz... Kolore desberdinekin margotutako paper zati handi bat ere erabil liteke oinarri gisa eta ikasleek sortutako irudiak bertan itsatsi. Sortutako muralaren gainean KORRIKA23ko leloa idaztea beste aukera bat izan liteke.

BALIABIDEAK

- Gelako ordenagailua eta proiektagailua.
- Koloretako kartulinak eta kola.
- Paper zati handia (zatar papera edo zuria).
- Logotipoaren hondoko irudia
- Irudien txantiloak

8. ARTELANA

Hona hemen irudiaren inguruko informazioa:


Irudiak ikonografiari ematen dio protagonismoa eta ikono ezberdinek biltzen dituzte euskal kulturaren zein KORRIKAREN zenbait elementu. Euskal kulturaren iruditeria kolektiboaren lekuko da. Ikonografian antzeman daitezke Jose Luis Zumeta, Mikel Laboaren iruditeria, Gernika margolana... Mihise koloretsu bat aurkezten da, alaia, festa giroa iradokitzen duena. Ikono ezberdinen artean lekukoak hartzen du garrantzia handiena.













Ikonoak


- Begi eta aho solteek Zumetari egiten diote erreferentzia
- Txoriak Mikel Laboari egiten dio erreferentzia
- Gernika artelaneko bonbila eta kriseilua
- Arkatzak "Azterketak euskaraz" mugimendua (omenduak)
- Euskal Herriko mendi federazioa (100 urte betetzen ditu 2024an)
- Irulegiko eskua
- Euskal Herria eta bihotza
- Gramofonoa (Korrika kulturala)
- Lekukoa
- Petoa
- Korrikako furgoneta
- Lauburua
- Arabako mahatsa
- Kantauri itsasoa
- Pirineotako elurra

























æek
23.korrika






























Irun

Baióna

aek
23.korrika

H A R P O
H E R P O



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

9. BINGO MUSIKATUA

SARRERA


Jarduera honen helburua, KORRIKAK historian zehar izan dituen kantak, eta beren egileak ezagutzea da.

Abestien bitartez, euskal musikaren aniztasunaz ohartuko dira ikasleak, estilo askotariko kantak egin izan baitira KORRIKArako.

Kanta hauek ezagutu eta eurekin jolastuz, taldean ondo pasatzea izango da helburu nagusia, euskal musika gozamenarekin lotuz.

PROZEDURA

- Bingo musikatuan banaka edo bikoteka jolasteko aukera egongo da. Ikasle bakoitzari edo bikoteari txartel bana emango dio irakasleak.
- Irakasleak unitate didaktikoen webguneko [estekan](#) klikatuta KORRIKAKo edizio desberdinetako kantak jarriko ditu ausaz, musika soilik, irudirik gabe. Ez da beharrezkoa izango kantak osorik entzutea (youtubeko kanalean "erreproduzitu zerrenda ausaz" botoia klikatuko dugu). Kasu! Korrika 21, 22 eta 23ko kantak ez daude zerrendan, beraz multimedia ataletik erreproduzitu beharko dituzte.



- Ikasleek, KORRIKAKo kantak identifikatu ahala euren txartelean markatu beharko dituzte.

- Lerro oso bat osatuz gero "KORRIKA LERROA!" oihukatuko dute eta kanta guztiak osatuz gero "BINGO KORRIKA!".
- Txarteleko kanta guztiak osatzen lehena denak lortuko du garaipena.
- Bingoa bukatu ondoren, edizio desberdinetako kantekin karaokea egin liteke. Kasu honetan, irudiak ere proiektatuko ditugu, ikasleek kanten hitzak irakur ditzaten.

BALIABIDEAK

- Ordenagailua eta bozgorailuak.
- [Bingorako txartelak](#).



23.korrika

KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 2: Santu adi korrika
KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 3: Egan
KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 7: Irigoien anaia eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 14: Ni ere bai



23.korrika

KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 8: Aide Korrika
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 20: Zirkorrika
KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 14: Ni ere bai



23.korrika

KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 8: Aide Korrika
KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak



23.korrika

KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 18: Bagoazi
KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni



23.korrika

KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 18: Bagoazi
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni	KORRIKA 9: Bizi ganoraz
KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak



23.korrika

KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 3: Egan
KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 5: Herri sarri larri
KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara



23.korrika

KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 19: Denok korrikara
KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 8: Aide Korrika



23.korrika

KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 16: Ongi etorri laguni	KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 23: Harro herri korri!



23.korrika

KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 19: Denok korrikara
KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni
KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 8: Aide Korrika



23.korrika *æk*

KORRIKA 16: Ongi etorri laguni	KORRIKA 21: Kiika	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 23: Harro herri korri!
KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik



23.korrika *æk*

KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 11: 1 eta 1
KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!
KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik



23.korrika *æk*

KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik
KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 5: Herri sarri larri
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 2: Sartu adi korrika



23.korrika

KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 15: Heldu	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza



23.korrika

KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 22: Hitzekin
KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 9: Bizi ganoraz
KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni	KORRIKA 20: Zirkorrika



23.korrika

KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 12: Big Beñat
KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 15: Heldu
KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 9: Bizi ganoraz



23.korrika

KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 5: Herri sarri larri
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 15: Heldu
KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 23: Harro herri korri!



23.korrika

KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 12: Big Beñat
KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 11: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 3: Egan



23.korrika

KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 12: Big Beñat
KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara	KORRIKA 21: Kiika
KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!	KORRIKA 14: Ni ere bai



23.korrika

KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 15: Heldu
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 23: Harro herri korri! korri!	KORRIKA 19: Denok korrikara
KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 4: Lontxo Aburuza



23.korrika

KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 9: Bizi gonoraz	KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik
KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 16: Ongi etorri lağuni!	KORRIKA 18: Bagoazi!



23.korrika

KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe
KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 16: Ongi etorri lağuni!	KORRIKA 8: Aide Korrika
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 9: Bizi gonoraz	KORRIKA 18: Bagoazi!



23. korrika

KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 12: Big Beñat
KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 19: Denok korrikara



23. korrika

KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 15: Heldu
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!
KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe



23. korrika

KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 15: Heldu	KORRIKA 4: Lontxo Aburuza
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 11: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe



23.korrika

KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 5: Herri sarri larri
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 15: Heldu	KORRIKA 18: Bagoazi

ena.net/



23.korrika

KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 4: Lontxo Aburuza	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara



23.korrika

KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni
KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 9: Bizi ganoraz



23.korrika

KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 23: Harro herri korri!
KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika
KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 21: Kiika



23.korrika

KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 23: Harro herri korri!
KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 4: Lontxo Aburuza	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika



23.korrika

KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik
KORRIKA 15: Heldu	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 23: Harro herri korri!

10. PLAZARA DANTZARA!

SARRERA

Jarduera honen helburua KORRIKako girotze lanarekin jarraitzea da. Gorputz adierazpena baliatuz, aurtengo kantaren koreografia dantzatuko dute ikasle guztiek elkarrekin.

KORRIKA GAZTEAren bukaerako emanaldirako aproposa izan daiteke, adin desberdinetako ikasleak elkarrekin koreografia gauzatzeko.

PROZEDURA

- Irakaslearen laguntzarekin eta tutoriala jarraituta, koreografiako urratsak irakatsiko dira lehenik. Ikasle trebeenak lehenengo lerroan jartzea aholkatzen da, atzeko lerroetako ikasleek erreferentzia gisa izan ditzaten. Garrantzitsua izango da urrats bakoitza ikasi bitartean geldialdiak egiten joatea.
- Urratsak ikasi ondoren, koreografiaren bideo osoa erreproduzituko da, urrats batetik besterako loturak nola gauzatu behar diren ikusteko.
- Entseguak egingo dira koreografia ongi ikasi arte.
- Ikasleek koreografia ikasia dutenean, kidetze plana abian jar liteke eta ikasle txikiagoei koreografia irakasteko ardura ikasle helduenengan jarri. Modu honetan, ikasle zaharrenek hartuko lukete irakasle rola eta adin desberdinetako ikasleen arteko harremanak sendotu litezke.
- Ikasle guztiek koreografia barneratu dutenean, emanaldi bat egin daiteke ikastetxean bertan, maila desberdinetako ikasleak elkartuta.

BALIABIDEAK

- Koreografiaren bideoa
- Entseguak egiteko espazio egokia.
- Bozgorailuak, kanta entzuteko.

11. OIHALETXEA

SARRERA

Zer egiteko prest zeundeke bidegabekeria baten aurrean, defendatzen duzun horren aldeko jarrera adierazteko? KORRIKA 23k omenduko duen "Azterketak euskaraz" kolektiboaren jarduna erakusten duen dokumentala da Lander Garrok zuzenduta, 23. KORRIKArako sortu duten "Oihaletxea" dokumentala.

Ikasleak, zineforumaren bitartez, iparraldean bizi dugun egoeraz jabetzea eta "Azterketak euskaraz" kolektiboarekiko atxikimendua sustatzea da jarduera honen helburua.

Film bat ikustea esperientzia indibiduala izanik, dokumental honek norbanakoari sorrarazitako emozioak eta iradokitako ideiak taldean partekatuz, bertan kontaktzen diren gertaeren gaineko hausnarketa sakonagoa lortu nahi da zineforumaren bitartez.

PROZEDURA

- Irakasleak zineforuma egingo dutela adieraziko die ikasleei eta dokumentalaren izenburuaren berri emango die: *Oihaletxea*. Izenburuak zer iradokitzen dien hausnartuko dute eta ideiak partekatuko dituzte talde handian (oihaletxea edo oihal-etxola, kanpadendaren sinonimo dela esan geniezaieke, pista gisa).

- Jarraian, dokumentalaren egilea [Lander Garro](#) izan dela adieraziko zaie ikasleei eta egilearen inguruan sakonduko da, idazlea, argazkilaria eta dokumentalgilea dela azpimarratuz. Bere lanik ezagutzen ote duten galdetuko zaie ikasleei.
- Dokumentala testuinguratzeko galderak egingo ditu irakasleak.
 - Ezagutzen al duzue bidegabekeria egoerarik? Zein?
 - Bizi al duzue zuen egunerokoan bidegabekeriarik? Zein?
 - Zer egingo zenukete bidegabekeria baten aurrean?
 - Zein lotura ote dago dokumentalaren izena eta bidegabekerien artean?
- Testuinguratze lanak egindakoan, filma proiektatuko da. Garrantzitsua izango da proiektioari seriotasuna emateko emanaldia leku egoki eta eroso batean egitea. Ikasleek errespetuzko jarrera adieraztea eta filma ikusten duten bitartean isiltasuna mantentzea ere garrantzitsua izango da.

- Dokumentala ikusi ondoren, zineforumari hasiera emango zaio. Solasaldia gauzatzeko bi aukera planteatzen dira, ikasle kopuruaren arabera:
 1. Irakasleak azpiko gidoiaren laguntzarekin gidari lanak egitea eta hausnarketa eta iritzien trukaketa talde handian egitea.
 2. Ikasleak talde txikitan banatzea, azpiko gidoiaren laguntzarekin taldekide batek gidari lanak egitea eta hausnarketa eta iritzien trukaketa talde txikian egitea. Eztabaida talde txikitan eman ondoren, gidari lanak egin dituzten ikasleek, talde txikian aipatu diren ideia garrantzitsuenak partekatuko dituzte talde handian. Azken solasaldi honen gidaritza irakasleak izango du.

Solasaldiarekin hasi aurretik, garrantzitsua da errespetatu beharreko arauak zein diren gogoratzea:

- Gidariak banatuko ditu hitz egiteko txandak.
- Gidariak denbora kontrolatuko du.
- Hitz egiten ari dena errespetuz entzungo dugu.
- Txandak errespetatuko ditugu.
- Besteen iritzia onartuko ditugu.
- Gure ideiak argudiatu egingo ditugu.

11. OIHALETXEA

Solasaldia aurrera eramateko irakaslearen gida:

Elorri Falxak, "Azterketak euskaraz"eko kideak, euskararen egoera oihaletxe bat bezala irudikatzen du. Gurea dugun hori gal ez dadin, kanpotik datozkigun etengabeko erasoei erantzunez bizi garela dio, gure "oihaletxea" sendotzeko astirik gabe.

- Bat egiten al duzue Elorriren deskribapenarekin?
- Nolakoa da euskararen egoera zuen inguru hurbilean?
- Zure ustez, jasotzen al du erasorik euskarak?

"Azterketak euskaraz" kolektiboa 2021ean sortu zen nahiz eta lehenagotik, baxoa euskaraz aldarrikatzeko mugimendua bazen. Brebetaren inguruan ere hitz egiten da dokumentalean.

- Ba al dakizue zer diren baxoa eta brebeta?
- Zuen eskolatzeari amaitu bitarteko azterketak euskaraz egiteko aukera izango al duzue zuek?
- Ikasketa guztiak euskaraz egin ondoren, azterketak euskara ez den beste hizkuntza batean egitera behartuko bazintzate, nola sentituko zinatekete?

Baxoa: Iparraldean Goi Mailako ikasketak egin ahal izateko ezinbestean eskuratu behar den titulua da, hegoaldean egiten den selektibitatearen baliokidea.

Brebeta: Iparraldean, bigarren hezkuntzan kolegioko eskolaratzea gainditu dutela ziurtatzeko egiten den azterketa da.

Oneka eta Aitzolek dokumentalean aipatzen duten bezala, 2021ean, Baxoko [filosofiako azterketa](#) euskaraz erantzun zuen Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasle talde batek, azterketak zuzenduak izango ez zirela jakin arren eta ekintza honek, beraien emaitzetan eragina izango zuela jakitun izanik. Azterketaren lehen zatian euskaraz ikasteko euren eskaria berretsi zuten frantsesez, eta ondoren euskaraz erantzun zituzten idatzizko galderak.

- Horrelako egoera baten aurrean, prest egongo zinatekete modu honetako desobediencia ekintza bat egiteko?
- Azterketako zuzentzaileek iruzkin desatsegin eta mingarriak egin zizkieten beraien azterketetan. Nola sentituko zinatekete horrelako mezuak jasoko bazenituzte?

Azterketak euskaraz pasatzeko eskubidea aldarrikatzeko proiektua martxan jarri zuen ikasle talde batek, Bordeletik Baionarako bidea bizikletaz eginez.

- Zein iritzi duzue proiektuaren inguruan?
- Parte hartuko zenukete horrelako ekimen batean?
- Nola uste duzue sentitu zirela proiektuan parte hartu zuten ikasleak?

Dokumentalean aipatzen den bezala, duela 30 urte baxoa frantsesez pasa behar izaten zuten eta gaur egun, egoerak berdin dirau. Aldaketarik egon ez bada ere, gauzak lortzeko borrokatu egin behar dela aipatzen da.

- Ados al zaude adierazpen honekin?
- Azterketak euskaraz kolektiboko ikasleen nortasunean, egoera honek izan al du eragin positiborik? Zer ikasi dute borroka honetan? Zein balore jaso dituzte?
- Zer egiteko prest zeundekete honelako bidegabekeria baten aurka borrokatzeko?

Euskara salbatzeaz gain, euskal kultura biziarazten jarraitzeko etorkizuneko euskaldun eraldatzaile eta eragileak behar ditugula dio Mañolok, Estitxu Robles Arangiz kolegioko zuzendariak, eta honen alde inplikatzeko eskatzen diete ikasleei.

- Oihaletxeak zutik iraun dezan, zer egiteko prest zaudete zuek?

- Solasaldian partekatu diren ideia garrantzitsuenen sintesia egingo du irakasleak, zineforumari amaiera emateko.
- Baxoaren inguruan sakondu nahi bada, Argiako "baxoa" kanaleko albisteak eta ikus-entzunezkoak kontsultatu daitezke.

Oharra:

Omenaldia jardueran, jarraipena emango zaio zineforumean egin den lanketari.

BALIABIDEAK

- Proiektagailua eta bozgorailuak.
- Solasaldia bideratzeko gida.

11. OIHALETXEA

Ikasleen gida:

Elorri Falxak, "Azterketak euskaraz"eko kideak, euskararen egoera oihaletxe bat bezala irudikatzen du. Gurea dugun hori gal ez dadin, kanpotik datozkigun etengabeko erasoei erantzunez bizi garela dio, gure "oihaletxea" sendotzeko astirik gabe.

- Bat egiten al duzue Elorriren deskribapenarekin?
- Nolakoa da euskararen egoera zuen inguru hurbilean?
- Zure ustez, jasotzen al du erasorik euskarak?

"Azterketak euskaraz" kolektiboa 2021ean sortu zen nahiz eta lehenagotik, baxoa euskaraz aldarrikatzeko mugimendua bazen. Brebetaren inguruan ere hitz egiten da dokumentalean.

- Ba al dakizue zer diren baxoa eta brebeta?
- Zuen eskolatzeari amaitu bitarteko azterketak euskaraz egiteko aukera izango al duzue zuek?
- Ikasketa guztiak euskaraz egin ondoren, azterketak euskara ez den beste hizkuntza batean egitera behartuko bazintuztete, nola sentituko zinatekete?

Oneka eta Aitzolek dokumentalean aipatzen duten bezala, 2021ean, Baxoko [filosofiako azterketa](#) euskaraz erantzun zuen Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasle talde batek, azterketak zuzenduak izango ez zirela jakin arren eta ekintza honek, beraien emaitzetan eragina izango zuela jakitun izanik. Azterketaren lehen zatian euskaraz ikasteko euren eskaria berretsi zuten frantsesez, eta ondoren euskaraz erantzun zituzten idatzizko galderak.

- Horrelako egoera baten aurrean, prest egongo zinatekete modu honetako desobedientzia ekintza bat egiteko?
- Azterketako zuzentzaileek iruzkin desatsegin eta mingarriak egin zizkieten beraien azterketetan. Nola sentituko zinatekete horrelako mezuak jasoko bazenituzte?

Azterketak euskaraz pasatzeko eskubidea aldarrikatzeko proiektua martxan jarri zuen ikasle talde batek, Bordeletik Baionarako bidea bizikletaz eginez.

- Zein iritzi duzue proiektuaren inguruan?
- Parte hartuko zenukete horrelako ekimen batean?
- Nola uste duzue sentitu zirela proiektuan parte hartu zuten ikasleak?

Dokumentalean aipatzen den bezala, duela 30 urte baxoa frantsesez pasa behar izaten zuten eta gaur egun, egoerak berdin dirau. Aldaketarik egon ez bada ere, gauzak lortzeko borrokatu egin behar dela aipatzen da.

- Ados al zaude adierazpen honekin?
- Azterketak euskaraz kolektiboko ikasleen nortasunean, egoera honek izan al du eragin positiborik? Zer ikasi dute borroka honetan? Zein balore jaso dituzte?
- Zer egiteko prest zeundekete honelako bidegabekeria baten aurka borrokatzeko?

Euskara salbatzeaz gain, euskal kultura biziarazten jarraitzeko etorkizuneko euskaldun eraldatzaile eta eragileak behar ditugula dio Mañolok, Estitxu Robles Arangiz kolegioko zuzendariak, eta honen alde inplikatzeko eskatzen diete ikasleei.

- Oihaletxeak zutik iraun dezan, zer egiteko prest zaudete zuek?

12. OMENALDIA

SARRERA

Jarduera honen helburua, KORRIKak edizio bakoitzean euskararen alde diharduen pertsona edo erakunde bat omentzen duela jakinaraztea da. Omenduek bezalaxe, gure ikasleek ere euskararen aldeko jarrera izan dezaten bilatu nahi da.

Jarduera honetan, ikasleei iparraldeko ikasleek duzuen arazoaren berri emango zaie eta ondoren, omenaldi gisa, sareetan zabaltzeko piezak sortzea proposatuko zaie, *Azterketak euskaraz* kolektiboari elkartasuna adieraziz.

PROZEDURA

- Irakasleak ikasleei jakinaraziko die KORRIKak edizio bakoitzean euskararen alde diharduten pertsona edo erakundeak omentzen dituela eta elkarrizketa bideratuko du beraiek omendu nahiko lituzketenen inguruan galdetuz.
 - Ezagutzen al duzue euskararen alde lan egiten duen pertsona edo erakunderik? Zein?
 - Nork merezi du zuen ustez omendua izatea?

- Galderei erantzun ondoren, KORRIKako aurreko edizioetan omenduak izan diren pertsona eta erakundeak aipatuko ditu irakasleak eta ikasleei galdetuko die, ea ezagutzen dituzten. [Hemen](#) topatuko duzue informazioa.
- KORRIKak edizio honetan iparraldeko ikasle nahiz gurasoek osatutako *Azterketak euskaraz* kolektiboa omenduko duela adieraziko die irakasleak eta elkarrizketa bideratuko du omenduen inguruan ondorengo galderak luzatuz:
 - Zuek zuen ikasketa guztiak euskara hutsean egiteko aukera al duzue?
 - Ba al dakizue Euskal Herriko lurralde guztietan ezin direla ikasketa guztiak euskara hutsean osatu?

(Oihaletxea dokumentalaren zineforuma egina badago, lanketa hau egina izango duzue)

- Helburu baten alde lanean dihardutenen aldeko elkartasuna adieraztea zein garrantzitsua den azalduko du irakasleak eta honen inguruan elkarrizketa sustatuko du.
 - Bidegabekeria egoera baten aurrean, zein jarrera hartuko zenukete zuek?
 - Zer egingo zenukete?
 - Gustatuko al litzaizueke gainerakoen babesa sentzitzea?
- Omenduen inguruko lanketa egin ostean eta elkartasunaren garrantzia azpimarratu ondoren, iparraldeko lagunei elkartasuna

adierazteko ikus-entzunezko piezak sortuko dituztela adieraziko die irakasleak. *Azterketak euskaraz* kanta erabiltzeko aukera izango dute euren sorkuntzetan. *“Azterketak euskaraz”* edo *“Baxoa euskaraz”* bezalako aldarriak dituzten kartelak ere sortu ditzakete.

- Mota eta iraupen desberdineko piezak sortu ditzakete, bakarka, talde txikian edo talde handian egiteko modukoak:
 - *Azterketak euskaraz* kanta baliatuz:
 - Lip dub-a
 - Flash mob-a
 - Leloa erabiliz, TikToka
 - Elkartasun mezuak ahoz adieraztea.
 - Bertsoak sortu eta kantatzea.
 - Bestelako proposamenak.

Ikus-entzunezko piezak sortzeko prozedura:

- Bakoitzak bere ideiak partekatuko ditu talde handian.
- Egiten diren proposamenen baitan, taldeak egingo dira.
- Grabaketak egin aurretik, edukia prestatuko da (koreografia, bertsoa, agurra...).
- Edukia prest dagoenean, entseguak egingo dira.
- Grabaketa egingo da.
- Edizio lanak egingo dira (muntaia, musika jarri, grafismoak txertatu...)
- Sortutako pieza gelan erakutsiko da.

12. OMENALDIA

- Egindako lanak eskolako nahiz norberaren sareetan argitaratuko dituzue, #azterketakeuskaraz eta #Korrika23 traolak erabiliz. Nahiago izatera, ondorengo helbidetara ere bidal ditzakezue:

<p>BERNAT ETXEPARE LIZEOA</p> <p>Helbidea: 5 Mayi Ariztia karrika 64100 Baiona</p> <p>E-posta: lizeoa@betxepare.eus</p>	<p>ESTITXU ROBLES KOLEGIOA</p> <p>Helbidea: 12 bis Mounede etorbidea - 64100 Baiona</p> <p>E-posta: idazkaritza@baionakolegioa.eus</p>	<p>KATTALIN ELIZALDE KOLEGIOA</p> <p>Helbidea: 2597 Zuraideko Bidea 64310 SENPERE</p> <p>E-posta: idazkaritza@kei.eus</p>
<p>MANEX ERDOZAINZI ETXART KOLEGIOA</p> <p>Helbidea: 64120 Lartzabale</p> <p>E-posta: meek.idazkaritza@seaska.eus</p>	<p>PIARRRES LARZABAL KOLEGIOA</p> <p>Helbidea: Eugène Corre etorbidea, 3 - 64500 Ziburu</p> <p>E-posta: idazkaritza@plk.eus</p>	<p>XALBADOR KOLEGIOA</p> <p>Helbidea: Ezpeletako bidea 64250 Kanbo</p> <p>E-posta: xalbador@seaska.eus</p>

Oharrak:

- Jarduera bere horretan egiteko denborarik izango ez bazenute, eskolako ikasle, langile nahiz gurasoekin argazki bat atera zenezakete, zuen elkertasuna adieraziz eta ondoren, Azterketak Euskaraz kolektiboari bidali edo eskolako webgune nahiz sareetan argitaratu.
- Ikus-entzunezko piezak sortu beharrean idatzizkoak sortu nahiko bazenituzte, ikus ORRO unitateko "Omenaldia" jarduera.

BALIABIDEAK

- Azterketak euskaraz kantua
- Grabaketak egiteko gailuak
- Bideo piezen ediziorako ordenagailua
- Sareetan zabaltzeko mugikorrak

13. KORRIKA GAZTEA

SARRERA

KORRIKA GAZTEA kasuan kasuko herritik KORRIKA 23 pasatzen den egunean egitea litzateke egokiena. Dena den, KORRIKA 23 pasatu aurretik ere egin daiteke KORRIKA GAZTEA. KORRIKA 23 herritik pasatuko ez balitz, lurraldea hartuko da erreferentziatzat.

Jarduera hau, lagunartean eta giro alaian egitekoa da, hortaz, ezinbestekoa da ikasleen arteko kidetzea eta errespetuzko jarrera bultzatzea.

Herri eta zonalde bakoitzean euskaltegiek eman ohi dituzten jarraibideen arabera antolatuko da KORRIKA GAZTEA.

PROZEDURA

- Ikasleak aurrez adostutako ibilbideko puntu desberdinetan egongo dira, zikloka eta mailaka antolatuta.
- Ibilbidea egiten duten bitartean oihukatuko dituzten mezu eta leloak aurretik adostea gomendatzen da.
- Lekukoa eskuz esku joango da, ikasle zaharrenetatik hasi eta gazteenetaraino.
- KORRIKA GAZTEA iristean, ikasle zaharrenek ohorezko hesia osatuko dute, eta ikasle gazteenak ttipi-ttapa pasatzean, txalotu egingo dituzte.
- Bukaeran, lekukoaren barruan joango den mezua irakurriko da KORRIKA 23ko kantaren koreografia dantzatuko dute, guztiek elkarrekin.
- Ibilbidean zehar, ikasleak argazki eta bideoak grabatzera animatuko ditugu, beraien sareetan zabaltzeko #Korrika23 traola erabiliz.

Petoa

Ingurumenean ahalik eta kalte gutxien eragiteko helburuarekin, aurreko ediziotako petoak erabili ditzakezue. Nahiago izatera, KORRIKA 23ko petoaren txantiloak ere badituzue, paperen inprimatu eta zuen petoak sortzeko.

Pankarta

KORRIKA 23ko pankarta eskolan bertan sortu liteke ikasleen laguntzarekin. Webgunean zintzilikatuta daude ereduak.


BALIABIDEAK


- Aurreko urteetako petoak (izatekotan).
- Petoaren fotokopia Din A-4 tamainara handituta
- Megafonian KORRIKA 23ko kanta; aurreko urteetako KORRIKAko kantak eta boladan dauden euskal musika taldeen kantak jarriko dira.

VARRI
HOI




æk
23. korrika





æk 23. korrrika



korrika.eus

æk
23.korrika

HARRERO
HEERROH

Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

æk KORRIKA

æk
23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

KORRI 12-18 URTE

